

**PARTE-HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA, NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTSAREN MENPEKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARIEN HAUTAKETA, EBALUAZIOA ETA IZENDAPENAREN BERRITZEA ARAUTZEN DITUEN FORU AGINDUAREN PROIEKTUARI DAGOKIONA.**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, foru lege baten aurreproiektua edo erregelamendu baten proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen herritarrek eta ordezkariak handieneko erakundeek.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikuluan j) apartatuan dioenez, herritarren eskubidea da herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa behar den denborarekin eskuratzeko, planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan,

aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan egiaz eta eraginkortasunez parte hartzeko xedeaz. Horrez gain, k) apartatuan esan bezala, eskubidea izanen dute parte hartu duten prozeduraren behin betiko emaitza publiko egin dadin, eta hartutako erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeten berri eman dakien, parte hartzeko prozesu publikoari buruzko informazioa barne.

Gainera, 21. artikulua azaltzen duenez, Nafarroako Administrazio Publikoek argitara emanen dituzte prestatzen ari diren araugintzako prozedurak, tramitazioaren zein unetan dauden adierazita, baita herritarren parte-hartzearen emaitza ere, iritzia emateko aurkeztu zaizkien prozesu guztietan.

Herritarrek aldez aurretiko kontsultan parte hartzeko aukera izan zuten, iradokizunak edo ekarpenak aurkeztuz, 2022ko martxoaren 10etik 30era bitartean. Aukera hori gauzatu ahal izateko, interesdunen eskura jarri zen helbide elektronikoa hau: [sie/hiz@navarra.es](mailto:sie/hiz@navarra.es)

Parte hartzeko prozesu horretara herritar batek, Hezkuntza Departamentuko maisu batek, egindako ekarpenak aurkeztu ziren, foru agindu berria argitaratzean kontuan hartu beharko liratekeen arazoei buruzkoak, bai eta arazo horiek kokatu eta argitzearen garrantziari buruzkoak ere, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko Lege Organikoaren ondoriozko aldaketek egungo araudia aldatzeko betebeharretik harago.

Azkenik, ekarpen horietan adierazten zen herritar hori kezkatua zegoela parte-hartze aktibo arduratsua bermatuko lukeen ekintza estrategikorik ez dagoelako, hain zuzen ere prozesu horrek Nafarroako hezkuntza-sistema publikoan duen garrantziagatik.

Apirilaren 1ean, aurretiazko kontsultari erantzuteko txostena aurkeztu zen, eta bertan alegazio horiei erantzun zitzaien.

Ondoren, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketa, ebaluazioa eta izendapenaren berritzea arautzen dituen Foru Aginduaren proiektua egin ondoren, herritarrek parte hartzeko tramitea bete zen, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuta, 2022ko maiatzaren 31tik ekainaren 20ra. Aipatutako helbide elektronikoa interesdunen eskura jarri zen.

Era berean, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritakoa betez, Foru Aginduaren proiektua Unibertsitateaz Kanpoko Irakasleen Mahai Sektorialean negoziatu zen 2022ko ekainaren 16an.

Foru aginduaren zirriborroa jendaurrean jartzeko aldia amaituta, sindikatuek honako ekarpen hauek egin zituzten:

- ANPE: Adierazi du ez dagoela ados LOMLOEk zuzendariak hautatzeko ezarri duen sistemarekin, bere ustez hautaketa klaustroko kideek egin behar dutelako bertako kideen artean. Bere iritziz, sistema horrekin ez da konponduko zuzendaritza-taldeen arazoa.

Azkenik, argibideak eskatu ditu foru aginduaren 5.4 artikulua idazketari buruz, eta erantzun zaio deialdia onesten duen ebazpenak idazketa hori zehaztuko duela. Bestalde, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak adierazi du deialdiari buruzko ebazpena aldeztetik aztertuko dela mahai sektorialean eta aurreikusita dagoela deialdia 2023ko urtarrila baino lehen egitea.

- CCOO: Adierazi duenez, aurretik planteatu zuten mugarik ez egotea ikastetxe bateko zuzendaritzara aurkezteko puntuazioetan, eta ongi legoke alternatibak bilatzea, ikastetxeko norbait zuzendaritza-taldeko kide izan dadin. Era berean, adierazi du ona litzatekeela zuzendaritza-taldeen agintaldia mugatzea, bai eta klaustroko kide bat gutxienez zuzendaritza-talde berrian egon dadila lehenestea ere, eta aztertu behar dela, halaber, zergatik ez duen jendeak aurkeztu nahi zuzendaritza-talde bateko kide izateko. Jarraian, iritziak azaldu dira ikastetxeetan zuzendaritza-taldeak osatzeko zailtasunak sor ditzaketen arrazoiei buruz.

- LAB: Zuzendaritza-taldeen prestakuntza nola egingen den galdetu du, eta erantzun zaio Prestakuntza Atalak eta Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak ezarriko dituztela horri buruzko jarraibideak –dagokion ebazpenean zehaztuko dira– eta prestakuntza errazteko tarte handiagoa emanen dela; beraz, ez da espero arazorik egotea prestakuntza-ikastaroa baliozkotzeko.

- FETE-UGT: Esan du zenbait pertsona ez direla aurkeztuko, zuzendaritzatalde batzuek luzaroan irauten dutelako. Horri erantzun zaio goi-mailako estatu-araudiak ez duela agintaldiak berritzeko mugarik ezartzen eta erabaki hori hezkuntza-administrazioen esku uzten duela, zeinek, hala erabakiz gero, gehieneko muga hori finkatzen "ahalko baitute". Bestalde, argudio hori baliagarria litzateke hautagaitza gehiago egonen balira, baina hori ez da benetan gertatzen, departamentuak eskura dituen datuen arabera.

- ELA: Proposatu du, hautagaitza gehiago egon daitezen, onets dadila karrerako funtzionario ez direnek aurkezteko aukera izatea. Goi-mailako estatu-araudiak ez du horretarako aukerarik ematen, eta, beraz, aurkaratu egin liteke foru-araudian onetsiz gero. Azkenik, adierazi du gustatuko litzaikeela EGA duten izangaiak eta D eredukoak ez diren ikastetxeetan aritzen direnak lehenestea, merezimendu-lehiaketan parte har dezaten. Proposamena jaso da.

Azkenik, foru aginduaren zirriborroaren 10.2 artikulutik irakastorduak kentzeari dagokionez, gogorarazi da zuzendariaren kasuan soilik ken daitezkeela eta hori aurreko araudian ere jasotzen zela.

Iruñean, 2022ko ekainaren 21ean.

**HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN**  
**ZERBITZUKO ZUZENDARIA**  
(sinadura jatorrizkoan dago)